



# Ikastolako Lehendakaria, berri emaile



Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue.

Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

## **KONTSEILU ERREKTOREA 2023-09-28**

### **KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERAREN BERRANTOLAKETA: DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGAREN ORDEZKOA IZENDATZEA.**

Dorletaren uko egitea onartu da. Honekin batera, Jon Zubillaga Urzelai, Almeneko guraso eta orain arte Kontseilu Errektoreko ordezkoa, izendatu da Kontseilu Errektoreko kide.

### **ELKARTE BERRIAREN SORRERA.**

PRO egitasmooaren helburu estrategikoak betetzeko garrantzitsua ikusten den Elkarte berri baten sorreraren inguruko azalpena eman dute Beñat Irazabal egitasmoko zuzendariak eta Arantzazu Ruiz de Azua Lanbide Heziketako irakasleak. Urrian zehar elkartearen estatutuen idazketa eta elkartearen eta ikastolaren arteko hitzarmenaren ezaugarriak lantzea da asmoa. Urriko bileran zehaztasun gehiago azalduko dira.

### **KONTSEILU ERREKTOREAK LANDUKO DITUEN GAIAK, KRONOGRAMA ZEHAZTEA.**

2023-24 ikasturtean zehar Kontseilu Errektoreak landuko dituen gaien aurrikuspena eta organo honen bilera egunak onartu dira. Biltzar Prestatzailearen eta Batzar Nagusiaren datak ere zehaztu dira. Biltzar Prestatzailea abenduaren 19an egingo da eta Batzar Nagusia urtarrilaren 16an.

### **2023-2024 IKASTURTEKO KUDEAKETA PLANA.**

Zuzendari Nagusiek 21-25 Plan Estrategikoko lehentasunak kontuan izanda, 23-24 ikasturterako ikastolako helburuen azalpena egin dute. Uztaileko bileran helburu horien norabidea Kontseilu Errektorearekin partekatu zuten. Honekin batera, udan egindako obren egoera azaldu dute. Almeneko kiroldegiko teilatua berriztea eta sarreran egindako lanak dira aipagarrienak. Honekin batera, Arimazubiko LAB-TOKIA izango denaren egokitzapena amaitzeaz dagoela azaldu da.

### **ZUZENDARITZA ALDI-BERRIAREN JARRAIPENA.**

Zuzendaritza aldia hasi eta zenbait hilabetera egindako kontrastea eta gero, gaur gaurkoz ikastola norabide egokiantzagoa irizita, ebaluazio prozesua

## **CONSEJO RECTOR 2023-09-28**

### **REORDENACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DEL CONSEJO RECTOR: NOMBRAMIENTO DE SUPLENTE DE DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA.**

Se acepta la renuncia de Dorleta. Junto a esto, se nombra como vocal del Consejo Rector a Jon Zubillaga Urzelai, padre de Almen y hasta ahora suplente del Consejo Rector.

### **CREACIÓN DE UNA NUEVA ASOCIACIÓN.**

Beñat Irazabal, director de PRO, y Arantzazu Ruiz de Azua, profesora de Formación Profesional, han explicado la creación de una nueva Asociación que se considera importante para cumplir los objetivos estratégicos del proyecto PRO. La idea es trabajar durante el mes de octubre la redacción de los estatutos de la asociación y las características del convenio entre la asociación y la ikastola. Para la reunión de octubre tendremos más detalles.

### **DETERMINACIÓN DEL CRONOGRAMA DE LOS TEMAS QUE VA A TRATAR EL CONSEJO RECTOR.**

Se aprueba la previsión de los temas a tratar por el Consejo Rector durante el curso 2023-24 y las fechas de reunión de este órgano. También se han fijado las fechas de la Asamblea Preparatoria y de la Asamblea General. La Asamblea Preparatoria se celebrará el 19 de diciembre y la Asamblea General el 16 de enero.

### **PLAN DE GESTIÓN CURSO 2023-2024.**

La Dirección General, teniendo en cuenta las prioridades del Plan Estratégico 21-25, ha expuesto los objetivos de la ikastola para el curso 23-24. En la reunión de julio compartieron el rumbo de estos objetivos con el Consejo Rector. Además ha explicado el estado de las obras realizadas en verano. Destaca la renovación del tejado del polideportivo de Almen y los trabajos realizados en la entrada. Así como que está a punto de finalizar la adaptación de lo que será el LAB-TOKIA de Arimazubi.

### **SEGUIMIENTO DE LA NUEVA ETAPA DIRECTIVA.**

Tras el contraste realizado varios meses después del inicio del periodo directivo, al considerar que hoy por hoy la ikastola está en la dirección correcta, se ha decidido posponer el proceso de evaluación hasta el próximo curso.

hurrengo ikasturterarte atzeratzea erabaki da.

## BESTERIK

### - Kontseilu Soziala.

Kontseilu Sozialak egindako azken bileran landutako gaiak azaldu ditu lehendakariordeak.

### - BAZARA Kontseilua:

lazko azpi-batzordeak ikastolaren identitatearen inguruan egindako lana positiboki baloratu zen bere momentuan. Orain, talde horrek bere lanarekin jarraitzea erabaki da. Bazara kontseilua izena emango zaio. Taldearen asmoa da Ikastolaren identitatearen inguruko lanketen iparra markatzea. Ikastolako eremu diferenteetako kideek osatuko duela aurreikusten da.

### - Ikastolen Elkarte.

Ikasturte honetan Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko VII. Biltzara egingo dela azaldu da. Ikastolok Euskal Herriari egingo diogun ekarpena gaurkotzea izango da prozesu honen helburua. EHtik aurkeztuko den txostenari ekarpenak egiteko aukera izango dugu ikastolok. Biltzara ikasturte amaierarako egitea aurrizkusten da.

## OTROS

### - Consejo Social.

La Vicelehendakari ha expuesto los temas tratados en la última reunión del Consejo Social.

### - Consejo BAZARA.

El trabajo realizado por la subcomisión del año pasado en torno a la identidad de la ikastola fue valorado positivamente en su momento. Ahora, se ha decidido que ese equipo continúe con su trabajo. Se llamará Consejo BAZARA. La intención del grupo es marcar el norte en torno a la identidad de la Ikastola. Está previsto que esté formado por miembros de diferentes ámbitos de la ikastola.

### - Ikastolen Elkarte.

Este curso se celebra el VII Congreso de Ikastolas de Euskal Herria. El objetivo de este proceso será actualizar la aportación que vamos a hacer las ikastolas a Euskal Herria. Las ikastolas tendremos la oportunidad de hacer aportaciones al informe que se presentará desde EHI. Se prevé que el congreso se celebre a finales de curso.

A	A	O	O	L	I
					1
3	4	5	6	7	8
10	11	12	13	14	15
17	18	19	20	21	22
24	25	26	27	28	29
31					

## URRIA: data nagusiak

2023/10/25 Kontseilu Soziala  
2023/10/26 Kontseilu Errektorea